

# Erroko testu argitaragabe bat eta beste batzuen iruzkina

ORREAGA IBARRA MURILLO\*

## SARRERA

Duela hilabete batzuk nere eskuetara heldu zen Erro herrian (Nafarroa) aurkitutako testu hau. Paperak etxe zahar bat konpontzean atera ziren, *Azarrrea* deitutakoan, eta jabeak, Isidro Murillok, euskaltzalea baita, etzuen pasatzen utzi horrelako aurkikundea. Jakin ahal izan dudanez, herriko apezka, Pedro Espinal jauna, etxe honetakoa zen, eta bertan bizi izan zen 1870-1940 urte bitartean.

Datu hauen arabera, aurreko mendeko edo mende honen hasierako urteetan egin zela pentsa dezakegu. Dokumentuak ongi mantentzen dira, pergaminozko paperean idatziak daude, bost orrialde dira zutabe batean idatziak, dena letra berarekin, horrek adierazten du egile bakar batenak zirela, ziurraski apez honenak. Testuaren goiko partean eta marra batez bereizturik gazteleraz idatzita, agertzen da: *Exorto para el que ha de recibir el S.mo Viatico*, eta azkenekoan ere *Exorto para el que ha de recibir la extrema=Uncion*. Honez gain, testuak latinezko eta gaztelerazko pasarte motz batzuk tartekatzen ditu, inolako oharrik gabe bi hizkuntzak jarraian idatziak datoz. Hauetakoa pasarte batzuk azpimarratuak agertzen dira, kasu horietan horrela notatu ditugu.

Ezagutu ditzagun orain Erroko beste testu batzuk. Jakina denez, duela berrogei urte inguruan, herri honetan beste hiru izkribu agertu ziren elizan; sermoi batzuk ziren, Satrustegik (1987: 261-273) *Euskal testu zaharrak* liburuan argitaratu zituenak. Orijinal hauen kopiak ere eskuratu nituen, beraz, oraingo nere helburua da testu berri hauek ezagutzera emateaz gain, Errokoak ditugun testu hauen guztien iruzkin linguistikoa ematea. Izan ere, daki-kegunez, oso gutxi dira -hauek besterik ez- hizkera honetan idatzitako izkri-

\* Nafarroako Unibertsitate Publikoa

buak, eta horregatik azterketa merezi dutelakoan gaude, are gehiago, euskararen egungo egoera ikusita.

Zorigaitzez, Erron euskara abantxu desagertu dela esan daiteke, hiztun zahar bat besterik ez baita gelditzen Erroibarko herri honetan. Galera azken urte hauetan gertatu da.

Hel dezaiozun bada gaiari. Lehenengo eta behin, sailkatuko ditugu sermoiak: Satrustegik (1987) argitaratutako I eta II zenbakidun sermoiei A deituko diegu, orijinalen kopiak ikustean, letra bera zutela ikusi genuelako, B izango da Satrustegiren III eta IV-a; azkenik, D izendatuko diegu egun ekarzen dugun testuari.

A eta B testuen edukiari dagokionez, esan behar lehenik herriko apezak prestatutako sermoiak direla, horregatik hizkera biziagoa, errejistro gehiago etab. erakusten dituzte. Sermoi bakoitzaren goiko partean, latinez idatziriko esaldi bat dator, eta gehienetan dagokion apostul eta kapitulua jarraian idatziak agertzen dira. Puntuazioaz den bezainbatean, testua koma eta puntu eta komen bidez berezia badago ere, gehiena jarraian idatzia dago, ia pasarterik agertzen ez delarik.

Gure edizioan, irakurketa erreztearren D testuan parentesi artean 1,2,4,5 orrialdeak notatu ditugu, motzak direlako. Satrustegik argitaratutakoetan, ordea, ez dago zenbaketarik eta guk ere ez dugu jarriko. Horrela A, B edo D notatuko ditugu.

Hitzen egiturari dagokionean, aditz nagusia + aditz laguntzaile, izena + erakusle, eta zenbait morfema (barin, bide) aditzetatik berezi ditugu aldaketa fonetikorik ez daudenean, gaurko modura egokituz, gehienetan itsasirik agertzen baitira. Honelakoetan, ez da testu-oharretan ezer adierazi. Aitzitik, aldaketa fonetikoak suertatzekotan, dagoen dagoenean utzi ditut. Ortografia iluna dagoenetan, eta horrelakoetan, orripeko oharren bidez zehaztu dira dagozkien iruzkinak.

## 1. IRUZKINA

Grafia saila luze eta korapilatsu azaltzen zaigu. Batipat, grafema ezberdinen erabiltzen direlako soinu berberak ordezkatzeko, eta orokorrean anarkiko xamarra agertzen da egoera.

### 1.1. Kontsonanteen sailean afrikatuak dira arazotsuen suertatzen direnak, grafia ezberdinen erabilera nagusi baita.

< ch > grafema eriden daiteke sabaiaurreko afrikatua ordezkatzeko [tʃ] hirru testuotan A-n: *manchetau*, *berachac*, *achaquiatic*, *erdechi*, *chucacen*, *chiquittoac*, *aprovecha*, *erchiqui*, B-n *manchaic*, *drechotic* eta D-n *erauchi*. Kasu bakar batean, ordea < tch > grafema erabiltzen da: *erdetchi* (A) eta beste batean < tx >: *itxusia* (A).

[tʃ] apikarirako, B testuan < ts > erabiltzen da: *poderotsoa*, *utsiñec*, *itsuec*, *antsa*. Baina, bestaldetik, gaur egun [tʃ] fonemari dagozkien ebakerak A testuan < x >-z ordezkatuak datoz: *loxagarria*, *ixasora*, *erauxi*, *ebaxi*, *exaiac*, *lo-*

*xatu*, *abraxengatic*, *erauxi*, *ortoxez*; batzuetan ere < ch > agertzen da: *erauchi* (A)<sup>1</sup>.

[ts] bizkarkarirako, grafia ezberdinak erabiltzen dira:

< tz > agertzen da kasu batzuetan: *iratzarri* (A), *gorputza* (A), *itzuli* (A) *anitz* (A), *errantzozute* (A), *etzueta* (A) *aguitz* (B). Errakuntza izan daiteke honako hau: *gorpuza* (A).

Halarik ere < tc > erabiltzen da A eta B testuetan: *etcitceioten* (A), *etcinduzat* (A), *etcio* (A), *etcen* (A), *etcirela* (A) *etce* (A), *utciric* (A), *itcic* (A), *zautcentutelaic* (B), *aitcentelaic* (B). Hauetako asko ez + frikaria bizkarkariz hasitako aditzak izaten direlarik.

Hirugarren grafema bat eriden dezakegu, batez ere aditzetako aspektu burutugabearen afrikatu bizkarraurrekoa osatzen duen morfemak ordezkatzeko < c >: *celebracen* (A), *errecibiceco* (A), *deicen* (A), *equencera* (A), *sinestacen* (A), *idiquicera* (A), *arquicen* (A) eta D-n: *alimentaceco*, *consequiceco*, *recibiceco*, *bearcen*, *confirmaceco*, *sinestacen*, *erdicean*, *salvaceagatic*, *orci*.....

Azkenik, laugarren grafema eridengo dugu D testuan <z>, hona bada: *izac* (D3) eta *corpucecoa* (D4).

## 1.2. Igurzkarien sailean, txistukariak izango dira lehenengoak:

Hauei dagokienez, <ss> bikoitza erabiltzen da soinu ezberdinak ahoskatzeko, eta horren froga da beste grafema batzuekin erakusten duen txandaketa. Batetik, Liturjiarekin zerikusirik duten hitzetan eta izen berezietan igurzkari apikaria ordekatzeko testigatzen da usuenik, hauetako batzuk grafia etimologikoari erantzuten diotelarik: *santissimaren* (A), *Moisses* (A), *Misterio* (A), *Dionissio* (B).

Beste kasu batzuetan, [ʃ] igurzkari sabaikoaren ordezkapena izan daiteke *i*-ren ondoren doanean: *pisscagau* (A), *aissquidec* (A). <s>-ren geminazioak, *l*-rena bezala, gaztelaniaren ereduari jarraiki, kontsonante palatalizatua erakus dezake.

Baina <is> erabiltzen da <ss> agertzen den hitz berberetan: *misterio* (A), *odol pisca batec* (A) eta *missterio* (A), eta *pissca bat* (A); bi kasu hauetan igurzkari sabaikoaren eta apikariaren artean datekeen txandaketa erakuts dezake. Beste kasuetan, <is>-k bizkarkaria ordezkatzeko du A testuan: *baisic*, *baissic*. Bestaldetik, *beressi* (A) eta *meressi* (A), *bulussiric* (A) kasuek [ʃ] sabaikoa edo bizkarkaria ordezkatzeko. Azkenik, kasuren batean, < ch > agertzen da sabaikaria ordezkatzeko: *choill* (B).

Frikari bizkarkariaren kasuan <c> dugu *e* eta *i* bokalekin: *recibitu*, *conciencia*, *cerbait*, *tentacionen* (D testuan), eta A-n: *Lucifer*, *guciac*, *erratenciola*, *bacequien* baina baita <z> ere bestelakoetan: *favoreaz*, *medioz*..

< x > grafiaren erabilera, goian aipaturiko afrikari apikaria ordezkatzeko gain, nagusitzen da maileguetan, eta posizio inplosiboan: *explicacen* (A), *exclamacen* (B), *proximo*<sup>2</sup> (A).

1. Mitxelena dioena Refranes y Sentencias-i buruz, aplikatu daiteke testu hauetan: "No ocurría lo mismo con la africada apical *ts* que, como se ha explicado tantas veces, era algo completamente ajeno a los oídos de marras. De ahí que en RS se arbitraran distintos recursos, a veces de una complicación extraordinaria para marcar la africación. (Mitxelena, 1987 [1978b], 421)

2. Ziurraski kasu honetan belarez ebakiko zen, izan ere pertsonari egiten dio erreferentzia, alegia 'prójimo' gatz., eta ez lekuari.

< j > grafemak ordezkatzeten du [x] igurzkari belarea maileguetan, belarez ebakiko ziren lexemetan: *bentaja* (A), *Jaungoico* (A), *ereje* (A), *trabaju* (A), *pasajero* (A). Baina A eta D testuetan, <j> grafema agertzen da euskal jatorrizko hitzetan: *joan*, *jai*, *Jaunac*, *Jangoico*; D testuan ere bai: *jayocela*, *Jauna*, *Jangoico*, *Jesucristo*, *trabaju*. Bestaldetik, <y> erabiltzen da igurzkari sabaikaria ordezkatzeko: *jayo*, *yain zara* (D). B testuan, ordea, <i > dagerkigu: *iaquin* (B), *iago* (B), eta A-n ere *iaquin* aditzetik eratorritako guztietan: *iaquin* (A), *ian* (A).

Saiatuko gara grafia hauei dagozkien ebakerak zein diren aztertzen: alde batetik euskaraz [ʃ] bi grafema ezberdinen bidez ordezkatu da: < j > eta < ss >. Bigarren kasuko adibideak eman ditugu goiko atalean: *pisscabat* etab., lehenengoaren adibideak A eta D testuko *joan*, *jai*, *jaun*-koak izan daitezke. \*j-tik eratorritako hauek posible da [x] fonema belarea ordezkatzea, baina, posible litzateke [ʃ] bezala ahoskatzea. Izan ere, badakigu, [ʃ]-ren ebakera aurkitzen dela herriko etxe baten izenenan *Xauregi* [ʃauregi], eta baita gure belarrietara heldu diren aspaldiko esaldien ebakeran: *biar xai* [ʃai]. Gaurrergo ebakera aintzat hartzen badugu, belare bezala ahoskatzen dira, mailegu berriez gain, lexema bakan batzuk *-joan-*, *ja ere-*, gainerako guztiak igurzkari sabaikariak dira.

Beraz, hau horrela bazen testu hau idatzi zen garaian ere, < j > grafemak, bi soinu ezberdin ordezkatzeko lituzke: igurzkari belarea mailegu eta liturjiarekin harremana duten hitzetan, eta, [ʃ] beste hauetan (joan, jai). Honi buruz, oso argigarriak izan daitezke Mitxelenaeren honako hitzak:

*...ya desde comienzos del siglo XVIII, en textos vascos (al menos en muchos textos vascos) habría que distinguir dos sonidos, una fricativa velar y una fricativa chicheante, para los cuales la ortografía castellana, que fue durante siglos el modelo inevitable en esta zona del país, ofrecía, sí, varios signos (x,j,g en ciertos contextos), pero como los empleaba de manera indistinta, no podían servir para diferenciar, por presión psicológica y social, lo que tan fácilmente podía ser diferenciado. Y no había trabas fónicas para la distinción porque se trataba de clases de sonidos que ni el más torpe podía confundir.* (Mitzelena, 1987 [1978b]: 391)

Soinu belarearekin segituz, Mitxenelak dioen bezala, < g > grafema [ʃ]-ren ordezkapena izan daiteke, eta hurrengo lexeman beti horrela agertzen da: *gende* (A). Beste hauetan, ordea: *Virginec* (A), *afligituric* (A) *magestade* (D) soinu belarea ordezkatzeten bide dute; ziurrenik gazteleraren grafia etimologikoaren eraginez erabiltzen da kasu hauetan guztietan.

Igurzkari ezpain-horzkaria orokorra da maileguetan, hona A testukoak: *profeta*, *afligiturik*, *furia*, *figure*, *infernuco*, *Lucifer*, *fariseo*, *confesacen*, *fresco*, *ofensac*. Ohikoa da, halaber, eremu honetan(A) *fite*-ren erabilera (=laster < fr. vite).

Bestaldetik, grafiaren atalean ere azpimarratu behar, A testuaren letra larrien erabilera izen berezietan eta bestelakoetan: *Ixasoa*, *Cerura*, *Balea*, *Mariñel*, *Pasajero*, *Demonioa*.

### 1.3. Bokalen sailak ez du arazo gehiegirik sortzen.

Bokal arteko igurzkari sabaikoaren ebakera ordezkatzeko [y], < i > bokala erabili ohi da A testuan: *iaan* (=igo), *iiateco*, *iiesi*, *bataiatu*, *gueiago*, *San Caietano*, *naiec* eta B-n *oiuz*, *ien*.

< y > grafema erabiliko da diptongoa beheranzkoaren bigarren elementuan: *Evay* (A), *Moyses* (A), *ayta* (A), *Aynguiru* (A), *Aytuzuelaic* (A), *ay* (A), *erregueay* (B), *baytan* (D), *oray* (D), *zuteneay* (D); eta beste honakoan, gaztelaniaren eraginez ziurraski: *ya* (B). Baina erabilera hau ez da sistematikoa: *goiticen* (A), *osoic* (A), *evetaic* (A), *beidacezuen* (A).

1.4. Herskari ahostun ezpainbietarako bi grafemaren erabilera testigatzen da < b > eta < v >. Bigarren hau erabiltzen da bi testuotan, gaztelera < v > mantentzen duten mailegu askotan, hala nola lehen graduko erakusleekin: *evac* (A) eta beste batzuetan; *agravioac* (A), *perseverancia* (A), *salvacioaren* (D), *aprovecha* (A), *divertitu* (A), *prevenicen* (A), *virtute* (A), *Virginec* (A), *viciac* (A), *esclavo* (A), *suavea* (B), *vide* (B), *conservatcentenec* (B), *vi* (B), *gonvidatcen* (B), *vere* (B), *badaviltce* (B), *converticen* (D), *salva* (D), *conveni* (D).

Herskari belareen soinua, ohiko erara egiten da eta honako banaketari erantzuten dio: < ga,o,u > eta < gue, gui >: *gueren* (B), *gueroz* (D), *oguia* (D), *guisa* (D), *conseguitceco* (D), *guelditcen* (B,D), *guiñan* (B), *ongui* (A), eta *guicia* (A), *gustua* (A).

1.5. Sabaikariez den bezainbatean, albokarietan < ll >-ren erabilera erabatekoa da A testuko maileguetan: *arrallacen*, *llaguen*, *bullla*, *batallaco*, *Donceilla*, *milla*, baita *i*-ren ondorengo sabaikari batzuetan ere, aurki daiteke: *eillegatu*(A), *ill* (B). Honenbestez, *i*-ren ondorengo albokari sabaikariaren ebakera, alegia bustidura asimilazioa, ez dirudi oso orokorra edo hedatua denik, grafiaren arabera behinik behin askoz ugariagoak dira -il- grafemak -ll- baino: *ilic* (A), *ilunetara* (A), *ilic* (A), *ilunura* (A), *bila* (A), *bilacenduzula* (A), *alegradaitecila* (A), *eilegatucelaic* (A), *ilabetez* (A), *privilegio* (A), *dilituez* (B), *magestaile* (D).

Sudurkari sabaikaria < ñ > grafiaren bidez ordezkaturia agertzen da usuenik bokalerdiaren ondoan: *digña* (A), *daiñu* (A), *ceñ* (A), *odietaraño* (A), *oiñazturez* (A), *gañeracoan* (A) *engañacen* (A), *escuñetaic* (A), *daiñu* (A), *oiñetaic* (A), *gaiñera* (A), *entrañetan* (A), *beñere* (A). Batzuetan, ikus daitekeen bezala, [j] bokalerdia agertzen da, eta beste batzuetan asimilatua gertatzen da eta ondoren, desagertua: *baño* (A), eta *baiño* (A); *baña* eta *baiña* (A), *ceñen* (B), *ceñec* (B), *beño* (D), *baña* (D).

Grafiaren arabera, esan daiteke [i] bokalaren ondoko bustidura ez dela usuenik gertatzen: *alcinen* (A), *equinen* (A), *determinatu* (A), *Niniveco* (A), *equinic* (A), *dominio* (A), *sinistacen* (A), *dotrina* (A), *determinatu* (A), *doacinec* (B). B-n, ordea, batzuetan testigatzen da: *alciñen* (B), aditzetan: *guiñuen* (B), *guiñan* (B) eta zenbaitetan hitz bukaeretan markatzen da: *iceñ* (B), *aiñ* (B).

## 2. FONETIKA-FONOLOGIA

### Bokalak

2.1. Hurbileko bokal asimilazioarekin hasiko gara, alegia *i,u* eta bokalerdien ondoren sortzen dena, ez da oparora mugatzailearen morfema mugetan. Adibide batzuk besterik ez ditut emango *u*-ren ondoren: *cerua* (A), *buruac* (A), *becatua* (A), *crístaua* (A), *infernuia* (A), *agradecimentua* (A), *becatua* (A), *eternua* (A), *frutua* (A), *mundua* (A), *bedeicatua* (A) *ofendituac* (A), eta D-n:

*concebitua, sandua, osasuna*, A testuan behin bakarrik agertzen da: *bicimoduen* (A), D-n beste bat: *arimeraco* (D5).

Aurrean esan bezala, *i*-ren ondoren ere ez da usuenik suertatzen: *andian* (A), *unciaren* (A), *guciac* (A), *erdian* (A), *mercaduria*(A), *itxusia, loxagarria* (A), *furia*(A) *errabia* (A) *atariac* (A), *miseria* (A), *osasuna* (D), *indar* (D), *conciencia* (D), *vicia, gloriaz, aundian, indar, gracia, eguiascoa, oguia. conzebitua* (D), *ataria* (B), *gracia* (B), *penitencia* (B), *injuria* (B), *sabiduria, justicia, omnipotencia* (B). .

Halarik ere, adibideren bat eriden dezakegu *i* eta *u*-ren ondoren, hauek B testuan agertzen dira: *atarie* (B), *guciec* (B), (A), *inocencico* (B), *Penitencie* (B), *malicie* (B), *eguié* (B), *miseriordie* (B), *moduen* (B), *trabajue* (B), *sacramentue* (B), *becatue* (B).

Honako kasuotan gertatzen da bokal asimilazioa morfema barruan: *cerureco* (B), *icen* (B), *inderra* (B) baina *indar* (B) eta morfema mugatik kanpo, beste honakoetan: *deitzen dugune* (B), *eguié* (B) eta *dizule* (D4). Dena den, adlatiboan ez da usuenik gertatzen: *cerura* (A), *Portura* (A), *mundura* (A), *cerura* (A).

Honainokoa laburbilduz hauxe esango genuke: A eta D testuetan asimilaziorik ez duten adibideak nagusi dira eta honenbestez, hurbileko bokal asimilazioa ez dela oparoa agerian daterkigu. Txandaketa nabarmenagoa bada ere B testuan, asimilatuen eta asimilatugabekoen arteko txandaketa nagusitzen da.

2.2. Beste bokal bilkuretara joango gara oraingoan, alegia: *-e + a* eta *-o + a* mugatzailea eta bere deklinatuak sortzen dutenetara.

Morfema barruan nahiz kanpoan *e + a > ea* bilkuretan denetan mantentzen da *ea*, kasu batean izan ezik: *Redentoria* (A), *criatu* (D). Honenbestez, esan daiteke egun hain ohikoa den goranzko diptongoa ez zela lehenago ebakitzen, edota testu idatzietan ez zela islatzen. Hona hemen sail handi hortako adibide batzuk: *barreanean* (A), *berean* (A), *berceai* (A), *artean* (A), *libraceagatic* (A), *botacea* (A), *egunean* (A), *Redentorea* (A), *aiceac* (A), *batean* (A), *azquenean* (A), *goicean* (A), *andrea* (A), *berea* (A). Morfema barruan ere, *-ea* bilkura dagoen dagoenean mantentzen da: *bereala* (A), *bear* (A), *atealdi* (A).

Era berean, *o + a > oa* eman du morfema mugen bilkuretan adibide guztietan honetan ezik: *rigurosuatec* (B5) .

Adibideak: *lemissicoa* (A), *ondoan* (A), *salmoan* (A), *chiquittoac* (A), *deseoac* (A), *dolorosoat* (B), *confesioa* (B), *Justoa* (B), *arrimoan* (B), *ondoan* (B), *ardoa* (D), *premioa* (D), *precioso* (D), *corpucecoa* (D), *gaiztoa* (D), *amoroso* (D), *oloroso* (D), *catolicoa*(D).

Morfema barruan ere mantentzen da *joan* aditzaren formetan: *zoaci* (A), *doacinec* (B).

2.3. Jakina ere badenez, ekialdeko euskalkietan eta goinafarreran sinkopatzera dagoen joera nabarmena da; testu hauetan ere horrela daterkigu. Ohikoena herskari + dardarkari bilkuretan sortzen dena dugu: *drechotic* (B), *orgatic* (B), *bedratci* (B) (A), *batrere, atra* (A), *abraxean* (A).

2.4. Aferesiaz den bezainbatean, alegia, hasierako bokala galtzera duen jo-

era azpimarragarria da: *man* (B), *cusazie* (B), *zaumentuc* (B) baina salbuespenak ere badira: *ezautuco* (A).

Konposatuaren lehen zatia desagertzen da, eta igurzkaria gelditzen da morfemaren hasieran, hemengo hizketan eta g.naf. hegoaldekoan ohikoa denez *gei + ago > yago: iago* (B), gaurko ebakera bezala.

Bestetik, bokal protetikoa erakusten du honako lexemak: *equentzera* (A) *equencen* (D), gaurregun ere Erroibarren eta Aezkoan erabilia. Azkenik, metatesiaren adibideak baino gehiago, errakuntzak diruditen honako hauek ditugu: *Presuna* (A), eta *anizt* (A).

2.5. Bokal sailarekin jarraituz, azpimarragarria da *e* eta *i* bokalek erakusten duten egonkortasun urria. Hitz hasieran *eli* txandaketa eriden dugu honako hitzean: *edequiq* (B) baina *idiquicentuela* (A). Bestaldetik, ondoko silabaren eraginez sortuak dirudite honako asimilazioak; *dilituez* (B), *bertuteic* (B), *aiguiru* (A), *ainguiru* (A), *buluxirik* (D). Beste bokal batzuk ere ixten dira; esaterako, txistukari batek ixten du *e* bokala: *izpiritu* (A), halaber, hurrengo silabako *u* bokalak ixten du hasierako /e/: *iduquico* (A, D5), *iruzquia* (A).

Bestaldetik, egun ohikoa den *i/u*-ren arteko txandaketaren arrastoren bat agertzen zaigu hemen: *Espiritu Santi Jauna* (D2). Izan ere, gaur arrunta da *-tukol/-tiko* txandaketa aditz formetan: *gelditiko* etab.

Nabarmena da, era berean, *a-e > e-e* asimilazioaren ondorioz sortzen den forma: *ertean* (B1) aspaldian testigatua (FHV: 70), baina ez da sistematikoa: *artean* (A) ere baitago. Halaber, *ereman* (A) forma usu dagerkigu A testuan bereziki, forma hau arrunta da goi eta behenafarreraz, gipuzkeraz eta lapurteraz.

Hitz azkeneko *-ol/-u*-ren artean, bigarrena aukeratzen da usuenik: *maistru* (A), *consolu* (A), *sosegu* (A), *trabaju* (B, D5), *calabozu* (A), *socorruaren* (A), *gustua* (A), *eternua* (A), *efectu* (D1) baina ez da sistematikoa, hona bestelako adibideak: *descuido* (A), *peligro* (D5), *misericioso* (D1).

2.6. Kontsonanteei helduko diegu oraingoan. Hitz hasierako herskarietz den bezainbatean, ahostunaren erabilera nagusitzen da, gaztelaniaz ahoskabea badago ere: *garcela* (A), *gonvidatcen* (B). Ezpainbikoetan ere, ahostuna da gailen: *biztuzguigula* (A), *becatua* (B), *vecatarien* (D2); halarik ere, herskari ahoskabeak badaude: *corpuzea* (D).

2.7. Sudurkariak asimilatzen du ondorengo herskaria honako bi adibideotan: *lemissico* (A), eta *orañic* (A), baina < mb > eta < nd > taldeak usu agertzen zaizkigu: *ainberce* (A), *cembat* (A), *dembora* (A), *cembait* (A), *limboa* (A) *aimberce* (A).

Sudurkariaren ondoko kontsonante herskariak, orokorrean ahostunen alde neutralizatzen dira, erronkarieraz eta zubereraz izan ezik. Gure aldetik, txandaketa da nagusiena Erroko euskaran: *agradecimentua* (A), *sufriementua* (A), *merecimentuequin* (B), *pensatcentelaic* (B), *sacramentu* (D1). Dударik gabe *-nt-* taldeak ugariagoak dira, baina horietako asko aditz laguntzaileen pluralak dira: *zautcentutelaic* (B), *intiogun* (B). Bestaldetik *-nd-* taldeak ere usu agertzen dira: *sanduari* (A), *sanduan* (D1), *barcamendua* (A).

Zenbaitetan *-tzen*, *-ten* bukatutako aditz partizipioaren *-n-> Ø* desagertzen da, ultzameraz gertatzen den bezala, honen ondorioz honelakoak ditugularik: *custautela* (B) (=ikusten dutela), *aitautela* (B) (=aitzen dutela).

Sudurkariekin jarraituz, *-on* bukatutako maileguetan txandakatzen dira

-n- mantentzen eta galtzen dutenak: *pasiona* (B), *pasione* (A), *pasio* (B), *satisfacio* (B). Bestaldetik, hemengo hizkeran ohikoa den bezala *orain* adberbioa azkeneko -n gabe ahoskatua erabiltzen da: *orai* (A), *orai artio* (B).

2.8. Dardarkariez diren bezainbatean, maiz askotan desagertzen da azken posizioan -r > Ø, aditz bilkuretan, baina ez da sistematikoa: *iaquin biauigu* (B) *ill beardu* (B). Bestaldetik, erdarazko maileguetan, hitz hasierako dardarkariak bokal protetikoa hartzen du ohikoa denez: *erresucitatu* (A), *errecibiceco* (A), *errespondatu* (A), *erredentorearen* (A), *erreligionearen* (A), *erredimiceco* (A), *errevelacioz* (A) *erremediacera* (A), *errespetu* (A), *errabia* (A). Baina *Redentoria* (A), *recibitu* (D1), *redimitu* (D1).

Dardarkariekin segituz, bi testutan *iru* zenbatzailea dardarkariarekin agertzen da: *irur* (A, D2). BN-z, aezkeraz, lapurteraz eta zubererazko antzineko formek bezala ez dute galdu azkeneko -r.

Eremu honetan ohikoa denez, errotazismoaren erabilera arrunta da, baina, grafiaren arabera ez dago jakiterik txistukari igurzkarri ala afrikatuak diren. Gaur egun ere bi txistukari hauen arteko txandaketa eriden daiteke. Honan testukoak: *berce* (B), *anberceco* (B), *bercea* (A), *ainberce* (A), *vercean* (D4), *berce sacramentu* (D4), *merchedeaz* (D4).

Dardarkariak aldizkatzen dira ahoskune berbera duten beste fonemekin, hobietako sudurkari eta albokariekin:

n/r : *belaurico* (A), *arima* (A), *arime* (D), *anima* (A)

l/r-ren arteko txandaketa aurkituko dugu baldintzazko morfeman: *barinbadute* (A), *nai barin badugu* (A), *barin bazara* (D4); baldintzaren partikula honetan *ld* taldearen murrizketa gertatu da, gero *rll* aldizkatuz *baldin* > *balin* > *barin* eman du, baina murrizketarik gabekoak ere baditugu: *baldin* (A).

Bestaldetik, bokal arteko dardarkaria txandakatzen da *d*-rekin: *beidacen* (A), *beidazacie* (A), *iruzquia* (A), *amorio* (A), *ero* (B) (A).

Sail honekin bukatzeko, gaztelaniaz -l-z bukatutako hitzei, Erroko euskaran -e bat eransten zaie mugatzailea eransterakoan: *arbolea* (B,D), *oficialear*, *materialear* (A).

2.9. Ikus dezagun zer gertatzen den kontsonanteen bilkuretan. Sail honetan azpimarragarria suertatzen da aditz laguntzailea *dut* + -n erlatiboaren bilkura, -da- bihurtuz: *eguin tudan* (A). Gaur ordea, *duten* da nagusi.

Ez + aditz laguntzaileen bilkurak:

ez + g > k : *ezquindue* (A)

ez + d > t : *eztaien icen* (B), *eztezan* (B), *eztugu* (B), *ezta* (B), baina salbuespenak ere badaude: *ezdute* (B).

ez + z > tz: *etzueta* (A), *ece* (A), *etcion* (A), *etcitceioten* (A)

ez + n > ø *enaiz* (D4)

n + txistukari taldeak afrikatua sortzen du batzuetan: *errantzozute* (A), baina ez da oso sistematikoa: *semejanza* (A), *erranzozu* (A). -R-eta l-ren ondoko afrikatuetan ez gaude ziur, <c> baitugu, askotan afrikazioa ordezkatzeko erabilia, baina besteetan ez: *ilcela*, *izan cela* (D2).

2.10. Kontsonante sabaikarizatuak diren bezainbatean, /t/ bustia, i-ren ondoko sabaikarizazio automatikoa ez da orokorrean egiten, ez bokal osoa ezta bokalardiaren ondoan ere: *chiquitasunez* (B), *erresucitatu* (B), *moguitu* (A), *maitea* (A) *garaitu* (A), *aituc* (A), *izpiritu* (A), *artuituenac* (A), *divertitu* (A), *aita* (A), *cituen* (A), *gutitan* (A), *veztitu* (A).



< tt > grafia behin bakarrik agertzen da, bustidura adierazgarriaren kasuan: *chiquittoac* (A).

Igurzkarien sailean (ik. grafiaren atala), nahiz eta B-k igurzkari sabaikoaren adibide gutxi erakutsi, testuak idatzi ziren garaian, [ʃ], [y] eta [x] fonemen arteko txandaketa zegoela baieztatzeko arrazoiak daudela esango genuke.

### 3. IZENAREN MORFOLOGIA

Izenaren morfologiarekin hasiko gara oraingoan:

3.1. Lehenengo eta behin, interesgarria da aztertzea kasu ergatiboan absolutibo plural eta ergatibo pluralaren arteko berezketa mantentzen den ala ez. Honetaz ba, esango dugu orokorrean, bigarren kasu honetan *-ek* dela nagusi: *Profeta sanduec erranic* (B), *ainguiruec eta justoec icusten eta beidacendiotela*. *Profetec baiño iaquintasun gueiago* (A), *tempestadec eta tormentec arrallacencioten uncia* (A1); D testuan honakoak ditugu: *guciec resucitatu bear dugula* (D3), *denec dugu obligacio* (D5), *gure obrec merezi duten premia* (D3). Dena den, batzuetan, *-ec* agertzen da bokal asimilazioaren ondorioz nahiz singularra izan: *Virginec baiño inocencia eta humildade gueiago* (A).

Haatik, nahiz eta maiztasuna *-ek* morfemaren aldekoa izan, salbuesperen bat badago: *gure obra onac...inder aundie dute* (B), *sorrac aitceutela* (B).

Honetaz landa, hurrengo izenordainetan, kasu ergatiboan *guc* (A) eta *guerec* (A) forma intentsiboak eriden ditugu: *guerec eguiten tiogutenez* (A). Bi forma ezberdinak izan daitezke erabilera berberarekin, edo *guc(re)c* > *guc* bilakabidearen ondorioz sortua dateke.

3.2. Kasu genitiboarekin joango gara oraingoan, morfema berberak bukaera ezberdinak eman ditu, orokorrean singularrerako *-aren* eta pluralerako *-en* ezberdintasuna mantentzen da, forma osotuak erabiliz: *unciaren* (A), *Ixasoaren* (A), *jaunaren* (D), *pecatauren* (D) *sanduaaren* (D), *misericiardiaren* (A), *socorruaren* (A), *guciaren* (A), *balearen* (A). Kasuren batean *-a(r)en* > *an* bihurtu da: *Jangoicoan gracien* (B), *Jangoicoan legueco* (B). Pluralean *-en*: *guciendaco* (A), *gucien* (A), *letanien medioz* (A), *becatuen manchaic* (B), *mandamentuen contra* (B), *becatuena* (B), *becatuen satisfaciotan* (B), *gu becatarien salvaceagatic* (D2), *aita sanduen arimac* (D2).

Baina A eta B testuetan, *-ain* morfema *-a(r)ren* > *ain* bihurtu da singularrean, *ae* bilkura itxi ondoren *ae* > *ai*, gaurko hizkeran egiten den bezala: *sepulturain ondoan* (A), *mortalain medioz* (A), *enorabuenain ematera* (A), *Ixasoain* (A), *amorioaingatic* (A), *sepulturain ondoan* (A), *mortalain medioz* (A), *Jangoicoain Justicia* (B).

Izenordainen sailean, azpimarragarria da *gueren* genitibo indartuaren erabilera: *gueren: confesio dolorosoat gueren becatuen* (B), *gueren becatuen satisfaciotan* (B), *gueren buruoc* (A), *bear dugu erdech mundu ontan gueren tristece-tan consolua* (A), *lenic escacen digu gueren arimen erresurreccioa* (A), *nola bear tioguten guc ere barcatu gueren proximo lagunei* (A).

3.3. Kasu instrumentalean < z > nahiz < s > grafiak agertzen dira, eta honetaz gain, *-taz* nahiz *-z* morfemak txandakatzen dira: *zein bidetaz* (B) *videaz* (B), *privilegioz* (A), *oiuz* (A), *guzion tristeaz* (A), *providenciaz* (A), *tormen-taz eta tempestadecz beteric* (A). D testuan: *merchedeaz, esquerraz, Santissimaz, debozionezcoez, gloriaz, graciaz, virtutez*..

Baina, denetan <s>-z bukatutako grafemak ere eriden ditzakegu: *avisus* (A), *Luciferren autoridades* (A), *divinidades* (A), *gracias betea* (A), eta D testuan: *eguiascoa*, *eguiasqui*, *ontas landara*, *consagracionesco*. Honenbestez, txandaketa dela nagusi esan dezakegu.

Bestetik, oso argi ikusten ez den arren, kasu instrumentala dirudi kasu honek ere: *Bere becatu eguinatz* (A) (“de sus pecados hechos”)

3.4. Kasu soziatiboan *-kin*, eta *-ki*, *-n* gabeko morfemak aldizkatzen dira. Jakina denez, bi morfema hauek ez dira aldaketa fonologikoaren ondorioz sortzen, morfologikoa baizik. Azkeneko *-n* hori inesiboaren desinentzia baita; dena den, maiztasun handiagoz lehenengo morfema agertzen da. Honezaz gain, singularrean *-rekin* *l-ikin*-en arteko txandaketa sortzen da A eta B testuetan, azkena gaurko erabilerari gehiago hurbiltzen zaiona: *beldurraiquin* (A), *juramentuairquin* (A), *consoluiqui* (A), *bozcarioiqui* (A), *emiendaiqui* (B), *guciaiqui* (B), *orrequi* (B). Aldiz, D-n denak *-ki*-dunak dira: *vatequi* (D5), *aundiarequi* (D1), *preziosoarequi* (D1).

Orokorrean, esan daiteke singular-pluralaren arteko ezberdintasuna nahiko ongi mantentzen dela salbuespenak badiren arren. Singularrean: *gueiagorequin* (A), *andiarequin* (A), *atencioarequin* (A), *andiarequin* (A), *ilcearequin* (A), *gorpuzarequin* (A), *espacioarequin* (A), *pacienciarequin* (A), *deseorequin* (A), *estadoarequin* (A) baina ez da mantentzen honetan: *iaquintasunequin* (A).

Pluralean *-eki(n)* dugu: *privilejioequin* (A), *meresimentuequin* (B), *fariseoquin* (B), *bozcarioequin* (B), *privilejioequin* (A), *guziequi* (D1).

3.5. Kasu destinatiboan, *-(a)rendako* morfema da ohikoena, ekialdeko eta g.naf. hegoaldeko eremu guztian bezala: *berendaco* (A), *guciendaco* (A), *demonioendaco* (A), *zuretaco* (D5).

3.6. Kasu prolatiborako kontsonante frikatiboz eraikitako *-zat* morfema eriden dugu kasu batean: *bere seme andiarren Amazat* (A). Baina, besteetan *-tako* dugu, ziurrenik (*tzat* + *tako*) bilakabidetik eratorria: *gure amataco*, *abogadataco*, *anparotaco eta medianerataco* (A).

3.7. Kasu datiboan kontsonantez bukatutako izen bereziei *-e*- bat tartekatzen zaie: *Adanei* (A), *Dabidei* (A), *Abranei* (A), *San Josei* (A). Bestaldetik, singular nahiz pluralerako *-r*-dun eta gabeko formak azaltzen dira txandaketan: *bere lagunei* (A), *condenatuei* (A), *apostoluei* (A), *guciei* (A), baina, *apostolueri* (A), *discipuloeri* (A), *gucieri* (D).

Honezaz gain, Luzaideko behenafarerraz, erronkarieraz eta zubereraz hain ohikoa den datibo pluralerako *-er* morfema, seguraski *eri*-tik eratorria aurkitzen dugu kasu batean: *errantzozute apostoluer* (B).

3.8. Bizidunentzat, *-gana*, *-gandic* morfemak erabiltzen dira adlatibo eta ablatiborako; *aitarengana* (A), *berceangandic* (B), *ama Virginaren gandic* (D2). Baina, inesiborako *baitan* posposizioa hautatzen da: *zuen baitan* (A), *Maria Santissimaren baitan* (A), *Santi Jaunaren baytan* (D2). Ohar bedi, bidenabar, batzuetan *-(a)ren* inesiboaren morfemarekin eraikitzen dela, besteetan, aldiz, absolutiboaren gainean ezartzen da: *seme bacarra baytan* (D2), *creazalea baitan* (D2).

3.9. Kasu adlatiboan *-rat* morfema behin agertu zaigu, mendebaldeko *-(e)rantz-en* kidekoa dena, zuzenbidea adierazteko erabiltzen da galdetzailen batean: *norat ereman zaituzte?* (A). Honezaz landara, egun bezala, adberbioetan *-ra*-ren erabilera pleonastikoa egiten da: *arara aguertu zen Balia* (A).

3.10. Kasu ablatiboaren pluralean *-taik* morfema da agerian gelditzen dena: *evetaic* (A), *oiñetaic* (A), *sanduontaic* (A). Ez dugu *-tatik* ezta *-tarik*-ren testigutzarik aurkitu, eta honenbestez, bigarren morfema da ziurrena, bokal arteko *-t-* >  $\emptyset$  desagertzea zaila suertatzen baita.

Singularrean, *-tic* da arruntena, baina kasu batean *-rik* ageri da: *becaturic* eta *escesotic* (A)

3.11. Erakusleei bagagozkio, eremu honetako berezitasuna da, lehen graduko erakusle pluralaren erdibokalaren kontsonantizazioa [awek] > [ebek] : *evetaic* (A), *evetaco* (A), *eder evequin* (A), *efectu ebec* (D).

Bestaldetik, Iparraldeko euskalkiek hasperena duten bitartean, erronkariaraz *k-* izango dugu: *kau*, *kori*, *kura* eta aezkeraz *g-*, *gau*, *gori*, *gura*. Agi denez, *g.naf.* mendebaldekoraino hedatu da ezaugarri hau, lehen graduko erakusle singularrek eta beren deklinatuek hartzen dutelako *g-* kontsonantea hitz hasieran. Mitxelenak (FHV: 247), ekialdeko euskalki hauek kontserbatzaileagotzat ditu; jakina ere badenez, aipatutako erakusle hauek izenki baten atzetik gordetzen dira, ez balio anaforikoan.

Hona adibideak: *lastimoso gontan* (A), *sandu gonena* (A), *Misteriogau* (A), *obragau* (A), *pisscagau* (A), *gonequin* (A), *gracia gura* (A), 3. graduan ere sortzen da kasu bakar batean: *denboragartaco* (A), *doctrinagonequin* (A), baina ez da oso sistematikoa erabilera hau. Esaterako, D testuan ez da behin ere agertzen eta B-n ere txandaketa dago: *vide ontaz*, . Hau dela eta, *-g-* >  $\emptyset$  bilakabidearen hasiera ikusten da honako adibideotan: *sandu ontaic* (A), *munduontaco* (A).

#### 4. ADITZAREN MORFOLOGIA

Aditzen erabileraren inguruan ohar bat merezi du egitea. Azpimarratu behar da testu hauek erakusten duten aberastasuna, oraingo erabilerarekin parekatuz. Izan ere, asko murriztu dira aditz sistemak era errejistroak.

4.1.Pluralgileekin hasiko gara oraingoan: ohikoa da *-zki* pluralgilearen erabilera aditz iragangaitzetan: *ciceizquiozen* (A), *ciceizquion* (A), *zaizquio* (A). Kasu batean *-z-* pluralgilea agertzen da *-zki-*rekin bada ere: *aguercen ciceizquiozen* (A).

Nork aditz sailan, *-it-*ren ordeez, *-z-* erabiltzen da kasu batzuetan: *loxacen zustela* (A), *bear zuzten alimentuac* (A), *nai bazuzten* (A). Halarik ere, orokorrean *-it-* morfema da ohiko pluralgilea, eta bokal artean horrela agertzen da: *eman citiola* (A), *citiotela* (A), *ezarri citiolaric guizonari* (A), *zuri ofenditu dituzuney* (D4). Morfema hasieran *-t* soilak egiten du pluralgilearen funtzioa, eta grafiaren arabera, behintzat ez du bustidurarik: *libracen tuen* (A), *idiquicent tuela* (A), *cumplicen tuen* (A), *equiten tioten* (A), *equencen tu* (D5).

Agintera eta subjuntibo aldian *-o-* agertzen da nori (hari) denean, nolabaiteko forma laburtua dugularik: *erran cezola* (A), *erran tzozute* (A), *erran zozu* (A), *man dezogun* (B), *man dezoquegu* (B). Datiboan sortzen diren murrizketa hauek ere aipatzen ditu:

*Les suffixes datifs sont les mêmes que pour les verbes intransitifs, mais les suffixes o, à lui: ote, e, à eus, peuvent donner lieu à des contractions qui n'existent pas dans la conjugaison intransitive: dieza + on = diezon, dieza + en = diezen... (Lafite 1979: 283)*

4.2. Aditz morfemak aztertuko ditugu oraingoan. Lehenengo eta behin, *nork* aditz laguntzaileetan agertzen diren morfemak. Lehenik, pluraleko 2. pertsonaren morfema *-zie* dugu goinafarrera hegoaldekoa eta iparraldekoaren zati handi batean bezala: *aizacie* (A), *beidazacie* (A), *nai diciet* (B), *erranicien* (A), *nai baucie* (A).

Bigarrenik, nor-nori-nork sailean, haiek-haiei dagokionean *-e-*, *-ote-* morfemen txandaketa testigatzen da: *beartu ciela* (A), *erranicien* (A) *devecacen ciotela* (A), *erraten ciote* (A), *equencen cioten* (A), *abarricatu tiote* (A). Nabarmendu behar da, gaur egun hain ohikoak diren 3. pertsonari dagozkion formak *-zekote*, *dakote*, *nekote-* ez direla testu hauetan testigatzen. Honenbestez, forma hauek berriak direlakoan gaude.

Honetaz landara, “guk edo zuk-haiei” formetan, *-gu-* eta *-zu-* morfema, *-o* eta *-te-*ren artean jartzen da: *estalcen tiogutela* (A), *suffricentiogutela* (A), *barcacen diozute* (D), *escacen diozut* (D). Hona zer dioen honetaz Lafittek:

*Il y a beaucoup de flottement dans la manier de placer les ons par rapport aux autres les divers suffixes de la conjugaison: ke du potential, z pluralisateur, suffix sujet, suffix-datif, te pluralisateur. Ex: erran lezaguke, diogute /diotegu (Lafitte 1979: 289)*

4.3. Bada hizkera honetan ezaugarri bat azpimarratzea merezi duena, alegia, lehen aldiko aditzek galtzen duten *-n-a*, aezkeraz eta goinafarrerazko hizkera batzuetan bezala. Testu hauen azterketaren ondorioz, esan dezakegu galera hau kasuren batean bakarrik gertatzen dela: *erraten ciote* (A), gaur egun, ordea, askoz hedatuago dago.

Adizkiekin jarraiki, aipagarria da honako forma bitxia: *ezturiru* (A) (< *eztur iru*), aditzean agertzen den *-r* hori, hirugarren pertsonari dagokiona da, hurrengo dardarkariaren asimilazioz sortua izan daiteke, ez baita beste inon testigatzen. Dakigunez, Uztarrotzen (erronkarieraz) 1. pers. singularrean suertatzen da, baina zeharo arrotza da 3. pertsonaren laguntzailean.

Aditzen errejistroei dagokienez, aipagarria da hiketako formen agerpena; agi denez, A eta B sermoietan ageri dira forma hauek, herriko jendearengana hurbiltzeko erabilitakoetan. Zehazkiago, deabruarekin mintzatzeko *atrauc*, *eldu duc* (A) eta Job eta Zaqueoren arteko elkarrizketan: *escacen duc* (A), *erauch adi* (A), *noiiic* (A).

4.4. Izkribu hauetan guztietan nabarmendu behar da ezaugarri bat: nor-nork aditz sistemaren erabilera, orain, lehen aldiaren eta baldintzan. Izan ere, egun erabat arrotzak zaizkigun forma hauek, nor-nori-nork sistemak ordezkatu baititu. Hona bildutakoak: *gonbidatcen gaitu* (B), *bota nazucie* (A), *eremanaci nindue* (A), *uznazazu* (A), *ereman zaituzte* (A), *an adoratuco nauzu* (A), *etcinduzat utcico* (A), *criatu gaitu* (D1), *conserbacen gaitu* (D1), *redimitu gaitu* (D1), *paratu gaitu* (D1).

4.5. Aditz partizipioaren erabileraz den bezainbatean, agintera eta subjuntibo aldietan, ekialdeko euskalkien bereizgarria den aditz oinaren erabilera ez da sistematikoa: *eztaitecila divertitu* (A), *baina diberti daitecila* (A), *cumpli dezan* (A), *consola zaizte* (A), *pasea ceicela* (A) *nailuque eztezan zautu arren becatue edo eztezan aborrecitu* (B).

Bestaldetik, erdialdean sorturiko partizipio analogikoaren erabilera, hemen ere azaltzen da, txandaketak erakusten baditu ere: *cerbizacen* (A), *bota-tu* (A), *sinestatcen ducu* (D2) baina, *botacea* (A), *acencen* (A).

4.6. Ahaleran ohikoak diren aditz laguntzaileetan \**ezan* erabili ordez, \**edin* agertzen da adibide honetan: *ezin pondera daiguena da* (D). Halarik ere, nahiz gaur ohiko egitura *ahal -tzen* den, forma sintetikoak eriden ditzakegu: *ezpazaquezu escatu* (D4).

Nabarmena da, bestaldetik, ahaleraren ekialdeko forma hau: *ez diroque aprovechatu becatariei sacramentua* (B), gaur behintzat entzuten ez dena. Hain zuzen ere, ahalezkoetako *-iro-* erroa (zub., ekialdeko b.naf. eta mendebaleko b.-nafarrerako zenbait hizkeratan erabilia) izan zen Bonapartek erabiliko irizpide bat isoglosak ezartzeko.

Laguntzaileetatik atera gabe, ohar gaitezen subjuntiboaren erabilera berezi honetaz, berriro ere \**edin* agertzen zaigu, nahiz eta \**ezan* ere beste kasu askotan testigatu dugun: *ersguigun* (A) (=herts daizkigun), *biztuzquigula* (A), *segurazquigun* (A).

4.7. Baldintzaren protasikoaren erabilera azpimarragarria da, gaur desagertu diren formak testigatzen baitira. Omaetxebarriak ‘supositivo del Potencial’ deitzen du aditz modu hau eta honela definitzen du: “egin daitekeen zerbaiti buruz ezartzen da “ba” baldintza, subjelibotasuna edo ustezko kutsua emanaz, eta esaten duenaren nolabaiteko beldurra edo esperantza erakutsiz<sup>3</sup>. Orokorrean (Euskaltzaindia 1987: 381) ahalezko baldintzak direla esan ohi da, izan ere zaila da alegiazko ez diren besteekiko zer desberdintasun duten asmatzea.

Orokorrean \**ezan* laguntzailearekin eraikiak dira topatu ditugunak: *Baldin ezaucen bazinduz* (A), *baldin ongui comprendi baguindeiza* (A). Halarik ere, txandaketaren testigutzak eriden ditzakegu ingurune berberan, badirudi, beraz, ordezkatze prozesua jadanik hasia zela: *ezpalu Jangoicoac zautcen becatua*, *ezpalu aborrecitcen*, *ez litceque..*(B), *ezpaleza castigatzen...ez litceque iceñ*. *Eva tristeac ezarri baguinduza* (A), *Eva tristeac galdu bazuen Jaungoicoaren grazia*, *Mariac bilatu cituen guciac* (A).

Iraganekoetan, ordea, ez dira erabiltzen aipatutako forma hauek:

*ojala emen egon baniz zure guardian etcinduzat utcico ebastera* (A).

Honetaz landa, protasian, ingurune berberan aditz oina, eta *-tzen* -en erabilera txandaketan daude: *ezpalu aborreciten*, *ez litceque izein infini Justoa*, *eta ezpalezoque castigatu ez litceque izeñ infini poderosoa* (B), *ezpaleza castigatzen ..ez litceque iceñ..*

4.8. Subjuntiboaren erabilera *-gatic* morfemaren bidez egiten da, aditz laguntzaileari erantsiz: *estima guindezanagatic* (A), *aprovecha desanagatic*, *ezagut nezantzat*, *ezagut cinezatentzat* aipatzen ditu *-tzat* erantsiz.

Gaur egun galdua dagoen beste aditz formaren erabilera ere agertzen zaigu: *etzuque bada gutiago eguin Jaungoicoac* (A). Bi aukera daukagu forma honen, batetik, errakuntza grafikoa gertatu bide da *ez + duke > eztuke* beharkeko litzatekeelako, eta < zt > ren ordez < tz > jartzea. Bestetik, lehen aldiko *zukeen* forma iradokitzen du, igurzkarrien arteko afrikaketa, eta azkeneko *-n*-ren galera suposatuko luke, ohiko joera eremu honetan eta lehen ere komenta-

3. AZKUE (Morf. Vasca II, 681) Azkuek *ilbanendi* “hipotético objetivo” flesiotzat hartzen ditu honakoak. Erdararen eraginari egozten dio forma horien ordezkatzea: “Esta sustitución de presente por futuro ha dado origen a la del futuro “ilgo banintz” por el presente remoto “il banendi”, como el desuso de presente hipotético <si yo muera> y su sustitución por <si yo muera, y si muriera ahora> dió lugar a que nuestro “il banadi” se oiga cada vez menos, sustituyéndole *iltenbanaz* si muero.

tua: *ez zukeen* > *etzuqueen* > *etzuque*. Edozein kasutan, ustezko kutsua, posibilitatea, edota etorkizuna ematen dion *-ke* morfema dugu hau, euskalki guztietan bizirik zegoena, eta gaur Iparraldekoetan bereziki gordetzen dena.

## 5. SINTAXIA

Esaldiaren egiturari joango gatzazkio oraingoan:

5.1. Gure izkribuetan izen sintagmak absolutoareen markaren ordeaz, genitiboarena eraman ohi du. Ekialdeko eta goinafarrera hegoaldekoaren euskalkien ezaugarria den hau, honeraino hedatzen zen ikus dezakegunez. Egun, ordea, oso kasu gutxitan mantentzen da.

Morfema hau onartzen duten nominalizazioak honakoak dira: *-tzera*, *-tzeko*, izenordainei ere aplikatzen zaie delako genitibo hau: *manchan borratceco* (B), *ofendituen aplacatceco* (B), *aien quentceco* (B), *becatari gucien salbaccera* (A), *enorabuenain ematera* (A), *zure alabaccera* (A), *llaguen untaccera* (A), *gure erremediaccera*, *salvacioaren conseguiceco* (D), *vecatarien salvaceagatic* (D), *magestaille sanduaren recibiceco* (D).

Baina txandaketa kasuren bat badago: *gure animac graziaz eta birtutez aberasteko* (D).

5.2. Denborazko esaldietan *-larik* da usuen erabiltzen den morfema, Nafarroa osoan arrunta den bezala: *aytuzuelaic* (A), *ofrecitcen tiogulaic* (A), *penatcen telaic* (A), *escatcen digulaic* (B), *ala escacen zaigulaic* (D5), *ezarri citio-laric guizonari* (A).

Bestaldetik, *aliqueta* ((h)alík eta...artean) ‘desde entonces’ morfemak agertzen dira denborazko zentzua adierazteko: *aliqueta Jesuchristo erauxi artean* (A), *(h)arík* ablatiboa izan daiteke, potentziala baino gehiago, gaur oraino Bizkaian darabiltena bezala, *-r-* > *-l-*-ren bilakabidearen ondorioz sortua.

5.3. Edukia parekatzen duten esaldietan, Axularrek zerabilen *bezanbat* testigatzen da hemen; *Jaungoicoac bezanbat iaquinen zuela* (A), *guizon den becenbatez izan zela conzebitua* (D2).

Halarik ere, berdintasunezkoetan baditugu *nola*-z osaturikoak ere: *resucitatu cen ainberce pobrengatic nola abrasengatic, chiquiengatic, nola andiengatic*. (A).

Sail berean, *ainberce...nola* egitura eriden dugu, gaztelaniaren kopia zuzena dena: *resucitatu cen ainberce pobrengatic nola abra-xengatic* (A).

5.4. Esaldi kontsekutiboetan eremu honetan ohikoa den *hain...ezi* egitura kausitu dugu hemen: *Ain insepareableac dire vi penitencioac bata bercean gantic, eci ezdiroque aprovechatu* (B).

5.5. Erlatibozko esaldietan *zein.....bait* edo *zein* soilik eta *ceinetan* eriden ditugu: *cein baite oliadura sandua* (D4), *oray recibitu beazu oliadura sandua sandua ceñec* (daquizun bezala) *umentatzen du gracia* (D), *Yrur gauza eguin cituen Jaungoicoac andiac eta admiragarriac, ceinetan eracuxi baicion munduari bere iaquintasuna eta bere poderea*.

5.6. Esaldi adbersatiboetan egitura hau eriden dugu: *aditz partizipioa-ik...ere. Becatari andiena izanic ere*. (A), eta *aditz partizipioa + -gatic. barcatuagatic Jangoicoac becatue vere misericordie infinitue dela medio, eztu choill barcatcen becatuen gatic mereci gui(nu)en pena* (B).

5.7. Kausazko esaldietan, *cergatic* dugu hasieran, eta *aditz laguntzaileari*

-n morfema nahiz *bait-* erantsi ohi zaizkio: *Cergatic den* (B), *cergetic zure guruce sandu dela medio redimitu baicindue mundua* (D3).

Bukatzeke, ekialdean eta baztaneraz bezala, aditzaren komunztadura falta eriden dugu kasu bakan batean: *ofenditu dituzun gucieri* (5), *ematen du indar arimari* (D5) baina ez beti, orokorrean honakoak baititugu: *emazguzu esquerraz gure Jaunari* (D4), *eman cezola Maria Santrissimari* (A), *erran cion Evari* (A), *abarricatu itote buruac infernuco Lucifer guciei* (A).

Perpau txertatuekin segituz, ekialdeko eta goinafarrerazko euskalkietan espero daitekeen *-t(z)era* agertzen da mend. *-t(z)en*-en lekuan *utzi* aditzarekin: *utzazu guti bat negar eguitera* (A).

## 6. LEXIKOA

Lexiko alorra oso aberatsa ez den arren, azpimarratu behar dira eremu honetan ohikoak diren hainbat item, hauetako batzuk desagertu direnak edo beren balio aldatu dutenak. Esaterako, *guti* hitzak euskara zaharrean eta aezkeraz bezala (ik. Camino 1996: 618), *pixkat bat*-en zentzua dauka hemen, egun galdua dagoena.

Beste honako hauek ere nabarmenduko ditugu:

*Abarricatzera* (A), *fite* (A), *beilla* (=vigilia) (A), *egun* (A), *iratzarri*, *aguitz* (B), *ostatzera* (A), *erauxi* (=jetxi) (A), *eurtiqui* (A) (=bota), *goizter*, *goizic* (A), *guti bat* (=pixka bat), *garaitu*.

Bestetik, hitz eratorri eta elkartuak urri dira, erdaratik berriki mailegatu hitz ugarien aldean. Hartaz, gehienetan erlijio gaietan ohikoen darabiltzate-nak dira nagusi: *castigatu*, *satisfacio*, *ofendituac*, *penitencia*, *quebrantatu*, *juramentuaiquin*, *perseverancia*, *sacerdotean*, *confesio*, *trabaju*, *abundantea*...

Garbi da, hartaz, ez gaudela, euskararen aldetik, bereziki landutako testuen aurrean, aitzitik, herriari hurbiltzeko egindako sermoiak genituzke A eta B, baina horregatik, ez balio gutxiagokoak, izan ere hemengo hizkeraren gauza interesgarriak azaltzen dizkigute.

D eskuizkribua oliadura emateko prestatutako otoitza litzateke. Batzuk eta besteak, joan zen mendeko hizkera honen berezitasunak jakiteko erabat baliogarriak gertatu zaizkigu, eta, hartaz, egungo euskararen egoerarekin parekatzeko lanabes ezinhobeak bihurtu dira.

### Exorto para el que ha de recibir el Smo Viatico

(1) *N. Ezin pondera daiguen da gure Jaunac digun amorioa. Criatu gaitu gure meritoric batere gabe. Conserbacen gaitu bere probidenzia aundiarequi, redimitu gaitu bere odol preziosoarequi; sufrituz pasione eta erioce doloroso para tu gaitu bere Elizan medio guziequi salvacioaren conseguiceco gueldituco da aldareco sacramentu sanduan gure sonsulutaco gure animac graziaz eta virtutez aberasteco, alimentaceco bere corpuz eta odol preziosoarequi; eman ez indar arimari enemigoaren tentazonen contra. Orai bada recibitu Jaun amoroso eta misericordioso efectu ebec bear duzu recibitu conciencia garbi batequi ocurricen zaizu cerbait confesaceco? Confiteor Deo. Misereatur Indulgenciam. V.*

(2) *Cristio Catolicoa bezala orai inbearduzu acto fedescoac.*

*S. Sinestatcen duzu Jangoico guciz poderoso zeruaren eta lurrearen creazalea baitan? Ynfirmus bay Jauna<sup>1</sup>.*

*S. Sinestatcen duzu Jesucristo arren seme bacarra baytan? Y.*

*S. Sinestatcen duzu Espiritu Santi Santi Jaunaren baytan? Y.*

*S. Sinestatcenduzu Aita, Seme eta Espiritu Sandua direla irur persona distintoac eta solo Jangoico bat eguiascoa? Y.*

*S. Sinestatcen duzu Jesucristo gure Jauna guizon den becenbatez izan zela conzebitua Espiritu Sanduaren obraz jayocela ama Virginaren gandic gueldicen celaric au beti Virginia erdi beño len erdicean eta erdiezgueroz?*

*S. Sinestatcen duzu, Jesucristo gure Jaunac padecitu zuela izan cela crucificatua eta il cela gu vecatarien salvaceagatic?*

*S. Sinestacen duzu, orci zutela, erauchi cela infernuetara atera cituela aita sanduen arimac? Y.*

*(3) S. Sinestatcen duzu, guciec resucitatu bear dugula gueren corpuzequi recibiceco gure obrec merezi duten premioa edo castigua? Y. Aquí se ofrece la cruz al enfermo para adorar diciendo. Adoracen eta vedicacen dizut Cristo cergatic zure gurutze sandu dela medio redimitu baicindue mundua.*

*S. hoc signem crucis erit in celo cum Dominus ad pubicandum venevit?. Se deja la cruz y se toma la sagrada forma y dice. Ecce agnus Dei ecce qui tolit peccata mundi.*

*Oray in bear duzu Elizeco sacramentu sanduen sinestamentua.*

*S. Sinestatcen duzu sacerdoteac (igdignoa<sup>2</sup> izanic ere) erranez gueroz consagracionesco izac converticen dela oguia Jesucristoren corpucean eta ardoa onen odol preciosoa? Y.*

*S. Sinestacen duzu oray nic nere escuetan daucaten delo egiasqui gure jaunaren corpuz preziosoa? Y.*

*S. Ontas landara escacen diozut barcamendu zuc (4) ofenditu dituzun gucieri? Y.*

*S. guisa vercean barcacen diozute zuri ofenditu dituzuney? ahora dice el enfermo 3.es veces.*

*Jauna ni enaiz digno orren magestaile sanduaren recibiceco baña alaic ere erran bedi orren iz sandua eta nere anima izain da sana eta salva. Al dar la forma accipe frater velzoror, Viaticum et Sanguinis Domini nostri Jesucristi qui te custodiat ab hoste maligno et perducatur in vitam eternam. amen. Se purifican los dedos y se da al enfermo la ablucion. En seguida la oracion. Domino Ste. Va??*

*Emazquizu esquerrac gure Jaunari in dizun merchedeaz valietuz ontaraco Maria Santissimaz eta zure sandu debozionezcoez. Que ofrezca los trabajos.*

*Berce sacramentu bat falta duzu recibiceco cein baite oliadura sandua bearcen barin bazara eta ezpazaquezu escatu escazen duzu oray danic. Dizule gracie gure Jaunac recibiceco bere efectu guciequi.*

## (5) Exorto para el que ha de recibir la extrema=uncion.

*N. Denec dugu obligacio conformaceco gure Jaunaren borondatearequi eta oray duzu zure zuc bearrago conformidade au, eritasun grave ontan gure Jaunac eman dezazun arimeraco osasuna eta corpucecoa conveni balin bada.*

1. Orijinalean azpimarratuak agertzen dira bemen azpimarratzen direnak.

2. Lehenengo <g>-ren gainean <n> agertzen da idatzia.



*Vicia dugu prestatua eta ala escacen zaigulaic bear dugu eman conformidade eta resignacionequei; oray balimada zure tenorea arime zaite cergatik acabacen dire zuretaco mundu ontaco trabaju eta peligro gaiztoac eta yain zara gozacen ceruco gloriaz.*

*Esperanza au iduqui bear duzu firmequi fundaturic gure Jaunaren misericordia aundian eta recibitu dituzun sacramentu sanduetan oray recibitu beazu oliadura sandua ceñec (daquizun bezala) aumentacen du gracia, equencen tu pecatuaren mancha eta reliquiac, ematen du indar animari enemigoaren tentacionen contra, eta corpuzeco osasuna conveni barin bada ontaco recibitu beazu conciencia garbi vatequi.*

*Ocurricen zaizu cerbait confesaceco.*

## BIBLIOGRAFÍA

- APAT-ECHEBARNE, A.; 1974, *Una geografía diacrónica del euskara en Navarra*, Colección Diario de Navarra.
- ARTOLA, K.; 1992, "Hegoaldeko goi-nafarreraren azentua dela-ta (Hurbiltze-saiakera)", *FLV* 60, 187-227.
- CAMINO, I.; 1990, "Euskalki batzu hiltzoriar", *Argia* 1990/ I / 14, 1275 zbk., 19-26.
- 1995, "Abiaburu bat aezkeraren azterketarako" *ASJU*-ren gehigarriak, *Euskal dialektologiaren kongresua* 1991.
- (tesi argitaragabea) 1996; *Aezkera: dialektologi azterketa*, UPV/EHU Unibertsitatea.
- ECHAIDE, A. M.; 1966, "Regresión del vascuence en el valle de Esteribar, Navarra", *Problemas de la Prehistoria y de la Etnología vascas*, Pamplona, 257-259.
- 1976, "Distribución de las variantes palatalizadas y no palatalizadas de "l" y de "n" debidas al contexto fónico en los dialectos vascos (...)", *FLVXXIII*, 163-169.
- EUSKALTZAINDIA; 1992, *Nazioarteko dialektologia biltzarra*, Agiriak 1991-X- 21/25, Bilbo, Iker 7.
- IBARRA, O.; 1991, "Mezkirizko toponimiaz", *FLV* 58, 301-357.
- 1995, *Ultzamako hizkera. Inguruko euskalkiekiko harremanak*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- 1996, "Cispamplonés hizkeraren inguruan", *ASJU*-n argitaratzeko.
- IRAIZOZ, P.; 1978, "Vocabulario y fraseología de J. de Lizarraga" *FLVX* 29 zb. 245-297; 30 zb. 461-486; XI 31zb., 121-162; 32 zb., 303-332.
- LAFITTE, P.; 1979, *Grammaire basque* (Navarro-Labourdin littéraire), Edition revue et corrigée. Donostia. Elkar-Ikas.
- MITXELENA, K.; 1964, *Sobre el pasado de la lengua vasca*, Donostia.
- 1976a, "Acentuacion alto-navarra", *FLV* 23, 147-162.
- 1977, *Fonética histórica vasca [FHV]*, 2.º ed. corregida y aumentada. *ASJU* -ren gehigarriak 4º San Sebastián. [1990].
- 1987, *Palabras y textos*, Bilbao, EHU / UPV.
- 1988, *SHLV, Sobre historia de la lengua vasca*, *ASJU*-ren gehigarriak 10, J.A. Lakarra (arg.), Donostia.
- NAFARROAKO GOBERNUA; 1990, *Nafarroako euskaldunen mintzoa*, Euskalerrria Irratia.
- PICABEA, M.L.; 1985, "Expresiones temporales en el habla coloquial del valle de Erro", *Euskera* XXX (2. aldia), 227-232.
- SARAGÜETA, P.; 1979a, "Trinidad Urtasun, Bertsolaria (1894-1978)", *FLV* 32, 333-338.
- 1979b, "Nere oroimenak", *FLV* 31, 171-175.
- 1981, "Mezkiritz (Erroibar)", *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, núm. 3, 5-36, Príncipe de Viana, Pamplona.
- SATRUSTEGUI, J.M.; 1985, "Perpetua Saragueta anderearen euskal ipuiak", *Egan*, Vol. XLIII, 131-139.
- 1987, *Euskal testu zaharrak*, Euskaltzaindia, Iruñea.
- SHOUTEN, M.E.H. & REENE, P.TH. VAN (ed); 1989, *New Methods in Dialectology*, Publications in language sciences, Foris Publications.

LABURPENA

Lan honen helburua da Erron (Nafarroan) aurkitutako dokumentu batzuen azterketa egitea. Hauetako bat hementxe dakargu eta Oliadura emateko moduz aritzen da, besteak J.M. Satrustegik argitaratu zituen aspaldian eta sermoiak dira. Herri honetako euskararen egoera galtzear dago, hartaz, testu hauek goinafarrera hegoaldekoaren hizkera honen ezagupenean laguntzen gaituzte.

RESUMEN

El objetivo de este artículo es realizar un análisis de varios documentos encontrados en Erro (Navarra). El recogido a continuación trata de la administración del sacramento de la Unción, los otros fueron publicados anteriormente por J. M. Satrustegi y recopilan varios sermones. La situación del euskara de este pueblo está en trance de desaparición, por tanto, estos textos contribuyen a profundizar en el conocimientos de esta variedad del dialecto alto-navarro meridional.

RÉSUMÉ

L'objet de cet article est de faire une analyse de plusieurs documents trouvés à Erro (Navarre). Nous apportons ici l'un d'entre eux, qui parle de l'administration du Sacrement de l'Extrême-onction; les autres furent antérieurement publiés par J.M. Satrustegi, et il s'agit de plusieurs sermons. L'euskara de ce village est en phase de disparition; ces textes contribuent donc à approfondir la connaissance de cette variété du dialecte de la Haute-Navarre méridionale.

ABSTRACT

The aim of this article is to conduct an analysis of various documents found in Erro (Navarra). One of them, which we have included here, concerns the administering of extreme unction; the others were published by J. Satrustegi and concern several sermons. The situation of the Basque language of this village is that it is on the verge of disappearance, and therefore these texts contribute to the deepening of the knowledge of this variety of the dialect spoken in upper-southern Navarra.